



3. IBILBIDEA TONTORRETAKO IKUSPEGIA

DURANGO - MENDIOLA - ATXARTE - POL-POL

Ibilbidea Tabirako San Pedro elizako parkean hasten da. Ezkerraldera jo eta Mañaria erreka gurutzatuko dugu.

Zubia igaro eta eskuinalderantz hartuko dugu, aldapan gora. Bidearen eskuinaldean baserri bat ikusiko dugu, eta apur bat aurrerago, eskuinaldera, porlanezko bide bat. Horixe hartuko dugu. Aldapa osoa igotakoan, bidegurutzetara batera helduko gara. Bertan harri-txintzarrezko bidea hartuko dugu. Hurrengo gurutzean, eskuinaldera hartuko dugu, bide asfaltatuan gora.

Hemendik lasterrera, ikuspegi zoragarria dago: **Untzillatx, Astxiki, Alluitz, Anboto...** Bidea jarraituta **Larringan errotara** helduko gara. Bertan, asfalto ezkerretara utzi eta errota aurretik igarotzen den belarrezko bidezidorra hartuko dugu.

Larre berdeak, zuhaixkak eta pinudiak zeharkatuko ditugu beheranzko bidean. Halako batean, asfaltozko bihurtune batera helduko gara.

Asfaltozko bidea jarraituko dugu **Auzunera** heldu arte. Bidearen eskuinaldean harraska bat ikusiko dugu, eta harraska ondoan bidexka bat. Horixe hartuko dugu: **Betiko baserritik Atxartera** eramango gaituen bidexka.

Bidexka amaitu eta Atxartera igarobidean sartuko gara, **Untzillatx eta Astxiki** artean. **Atxartera Kristoaren** ermita igaroko dugu, gero erreka gaineko zubi bat: Alboan ur-errota baten aztarnak ikus daitezke. Porlanezko bidean gora jarraituko dugu, eta aparkalekua dagoen tokian, ezkererantz hartuko dugu, bidexka baten pendizetan gora. Pagadi bat igaro ostean, **Guenzelai** izeneko lautadara helduko gara. Guenzalaitik ezkerredera hartuta **Artolarako** bide malkartsua dago, eta handik **Astxikira** (ezkerretara) edo **Alluitzera** (eskumara) joan daiteke. Gu, ostera, beste bidetik hartuko dugu, haitz-magalen paretik doana: **Pol-Pol**-erako bidea.

Bide erdian, **Amilla iturria** dago, pagadi eder bat erdian hain zuzen. Aurrera eginez, beste pagadi batera helduko gara, eta han hasten da **Pol-Pol**-erako aldaparik gogorrenak. Izerdi apur bat bota ostean, Asuntzeko larretara iritsiko gara, Pol-Pol-era. Larrearen erdian metal-ureko iturri eder bat dago. Pol-Pol-etik abiatuta inguruko beste paraje eder batzuk ere bisitatu ahal ditugu: **Larrano, Anboto edo Urkiolagirre**. Bestela, **Urkiolako Santutegira** daraman pista hartu ahal da.



DISTANTZIA

13 km



IRAUPENA

3,5 ordu



DESNIBELA

700 m



ZAILTASUNA

Nahiko erreza